

# EUSKAL OSASUN SISTEMA ZERBITZUKO PROFESIONALEK 624 AHOZKO ERASO EDO ERASO FISIKO JASO ZITUZTEN PASA DEN URTEAN

Hala jaso du Osakidetzaren zuzendaritzak, sindikatuek eta Osakidetzaren prebentzio-zerbitzuek osatzen duten Osakidetzaren Erasoen Behatokian ezarritako irizpideen arabera egindako txostenak

**Osasun Sailak eta Osakidetzak sentsibilizazio sozialerako kanpaina berri bat jarri dute abian “Erasoak STOP” lelopean, osasun-profesionalekiko errespetua eskatzeko**

Osakidetzak Euskal Osasun Zerbitzuko profesionalei ahozko eraso edo eraso fisikoak egiteagatik 624 jakinarazpen erregistratu zituen 2017an. Kasuen herena (123) istripuak izan ziren, hau da, lesioak eragin zituzten erasoak izan ziren, eta **gainerako % 70a (448) gertakariak izan ziren**, hau da, lesiorik gabeko erasoak.

Hala jaso du Euskal Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoer buruzko txostenak, martxoaren 16an izango den “*Osasun langileen aurkako erasoaren aurkako egunaren*” bezperatan ezagutzera eman dena. Hain zuzen ere, Osakidetzako zuzendaritzak, sindikatuek eta prebentzio-zerbitzuak osatzen duten **Osakidetzaren Erasoen Behatokian** ezarritako irizpideen arabera egindako txosten honek osasun-profesionalen aurkako bortizkeriaren benetako irismena ikusaraztea du xede.

Hilabete honetan bertan, Osasun Sailak eta Osakidetzak **sentsibilizazio sozialerako kanpaina berri bat jarri dute abian, osasun-profesionalekiko errespetua eskatzeko**. “Erasoak STOP” lelopean, kartelak ipini dira Esuakdiko osasun-zentro, ospitale eta gainerako osasun-erakundeetan, eta komunikabideetan eta Osasun Sailaren eta Osakidetzaren sare sozialetan ere izan du oihartzuna.

Kontzientziazio sozialerako kanpaina horrez gain, Osakidetzako erakunde guztiak ari dira **prebentziarako neurriak** ezartzen, **prestakuntza** eskaintzen dute gertaera hasiberriak errotik kendu edo berbideratzeko, “*larrialdietarako botoiaren*” bidez, eta kasu batzuetan “*hesi-neurriak*” ere hartzen ari dira.

Gogorarazi behar da profesional baten aurkako erasoaren inguruko ekintza guztiak **berariazko protokolo** bati jarraiki egiten direla eta, beraz, Osakidetzak, **jakinarazitako erasoak ikertu** ez ezik, hala eskatzen duten langile guztiei **aholkularitza juridikoa** eskaintzen die. Osakidetzak babes juridiko hori beren profesionalei lege-prozesu osoan zehar laguntza ematen eskaintzen die, abokatuen laguntza ere, nahiz eta, legeak hala adierazita, Osakidetzak, erakundea izateagatik, ezin dituen adierazpenen izapideak ordezkatu, ezta epaiketaren parte hartu ere.

### 2017ko DATUAK

Eusko Jaurlaritzaren **gardentasun-politikaren** ildotik, osasun-profesionalen aurkako erasoari buruzko 2017ko txostenak jarraian adierazitako datuak biltzen ditu. Txostena Osakidetzako zuzendaritzak, sindikatuek eta prebentzio-zerbitzuak osatzen duten Osakidetzaren Erasoen Behatokiak jakinarazpen elektronikoen sistema berri baten bidez egin da. Sistema hori ezarri zen osasun-profesionalen aurkako bortizkeriaren benetako irismena ikusarazteko.

**Talde profesionalei** dagokienez, jakinarazpenek gora egin dute, gertakarien zein istripuen kasuan, Osakidetzaren baitan langile gehien izan eta paziente eta senideekin harreman handiena izan ohi dutenek.

KATEGORIA	GUZTIRA	GERTAKARIAK	ISTRIPUAK	BAJAREKIN	BAJARIK GABE
Medikuak eta teknikoak	149	139	10	4	6
Diplomadun sanitarioak	210	149	61	7	54
Erdi-mailako teknikariak	4	3	1	0	1
Teknikari Espezialista Sanitarioak	2	2	0	0	0
Teknikari Espezialistak Administrazioan	7	7	0	0	0
Teknikari Espezialista Profesionalak	1	0	1	1	0
Teknikari Laguntzaile Sanitarioak	169	83	86	17	69
Teknikari Laguntzaileak Administrazioan	41	40	1	0	1
Tekinari Laguntzaile Profesionalak	1	1	0	0	0
Operario mendekoak / Jagoleak	40	24	16	0	16
<b>GUZTIRA</b>	<b>624</b>	<b>448</b>	<b>176</b>	<b>29</b>	<b>147</b>

**Sexuari** dagokionez, emakumeek helarazitako erasoak gizonen jakinarazitakoak baino gehiago dira, langile gehienak emakumeak direnean, baita gertakari-indizeak ere (gertakari bat 1.000 langileko), eta proportzio berari eusten badiote ere, asko gerturaten dira istripuen kasuan.

SEXUA	GUZTIRA	GERTAKARIAK	ISTRIPUAK	BAJAREKIN	BAJARIK GABE
EMAKUMEA	505	364	141	21	120
GIZONA	119	84	35	8	27
	624	448	176	29	147

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 14a